


IBILGAILUEN LANTEGIAK ETA OSASUNA

Zure lanean, ibilgailuak
aztertzen eta konpontzen
aritzen zara.
Identifikatu zure laneko
arriskuak eta "konpon itzazu"
sasoian egon zaitez

Sasoian egon!!



- ZURE LANA ETA ZURE OSASUNA
- SEGURTASUN ARRISKUAK
- ARRISKU HIGIENIKOAK
- ARRISKU ERGONOMIKOAK

Zure lana eta zure osasuna

Hainbat arrisku dituzte egiten dituzun eragiketek, lan-baldintzek eta erabiltzen dituzun produktuek, ekipoez eta tresnek. Har itzazu neurriak.

Segurtasun Arriskuak

Txukutasuna eta garbitasuna

Sarrien eman ohi diren istripuetako batzuk erortzean, irristatzean, estropezu egitean eta objektuekin kolpeak hartzean gertatzen dira.

- Eduki zorua isuritako likidorik gabe, hau da, koipe, olio, ur..., tresna eta hondakinik gabe
- Saiatu tresna elektrikoaren eta argi eramangarrien kableak zorutik egotea. Kontuan izan aire, oxigeno, azetileno, eta abarrerako mahukak ere badirela
- Erabili lanerako tresnak eramateko orgak
- Lan bakoitza amaitzean, garbitu tresnak eta jarri, antolatuta, dagokien lekuan



Esku- tresnak

Lanerako erabiltzen dituzun tresnek ebakiak, kolpeak edo partikula edo zatien proiektzioa eragin ditzakete.

- Erabili tresna bakoitza dagokion eginkizunerako eta bakoitzaren babes-ekipoekin
- Egiaztatu aldizka horien egoera eta mantendu behar bezala
- Akatsa duen tresnaren bat aurkitzen baduzu, ez erabili lanerako; erabili beste bat lehenengo hori konpondu arte

IBILGAILUEN LANTEGIAK ETA OSASUNA

Makinak

Jasogailuak, polipastoak, orekagailuak, hagunak kentzeko makinak, konpresoreak eta abar aldizka mantendu eta aztertu beharko dira, eta fabrikatzailearen jarraibideak jarraituz erabili.

- 1995. urteaz geroztik, CE markaketa eta makina erabiltzen hasi aurretik ezagutu beharko duzun fabrikatzailearen jarraibide-eskuburua daramatzate makinek
- Harrapatzeko arriskua dagoen eremuetan babesleak eraman beharko dituzte makina guztiak eta ez dira INOIZ gauzaeztandu behar
- Jasogailua erabiltzen duzun lanetan, errespetatu gehieneko karga. Aktibatu esku-balazta eta jarri segurtasun-takoak
- Orekagailua martxan jarri aurretik, ziurtatu gurgila bridan behar bezala blokeatuta dagoela. Oreakatzen duzun bitartean, ez gelditu inoiz eskuaz biraketa
- Eraman arropa eskumuturretan estutua eta lotu botoiak edo itxi kremailera
- Presiozko airea ez da koipegabetutako piezak lehertzeko erabiliko, ezta hautsa kendu edo lanerako arropa lehortu edo haizatzeko ere
- Disko-makinetan, behar bezala muntatuta egon behar dute diskoak eta armazoi babeslea eraman beharko dute. Bota hondatutako diskoak



Kontaktu elektrikoa

Lanean makinak, tresna, lanparak, soldadura-ekipoak edo bateria edo bujiak bezalako ibilgailu-zatiak erabiltzen dituzu, eta horiek elektrizitatearekin zuzeneko edo zeharkako kontaktuen eraginpean jartzen zaituzte.


- Aztertu ekipo elektrikoak erabili baino lehen, eta ordezkatu hondatutako kableak, entxufeak eta larakoak

IBILGAILUEN LANTEGIAK ETA OSASUNA

- Baterien gainean metalezko tresnak edo elementuak egoteak, zirkuitulaburrak sor ditzake
- Kaxa elektrikoan etengailu diferentzialak eta magnetotermikoak egongo dira. Seinalezta itzazu behar bezala
- Isolamendu bikoitza ez duten makinak eta ekipoa (☐), lurrera konektatuta egongo dira

Suteak eta leherketak

Besteak beste, koipeak, olioak, likido sukoiak egoteak, soldadura-lanek eta aireztapen eta ateratze-sistematik ezak suteak eta leherketak lantegiko arriskurik larrienetakoa bihurtzen ditu.



- Mugatu eta kontrolatu substantzia sukoiak eta gorde suarekiko erresistenteak diren metalezko armairuetan
- Erabili argi-iturri egokiak, txinpartarik sortzen ez dutenak, atmosfera leherkorrak (ATEX) dauden lekuetan
- Eduki lokalean aireztapen egokia eta pintura-gasak, -lurrinak eta -aerosolak xurgatzeko sistemak
- Ez soldatu produktu sukoiak gordetzen diren lekuetan
- Eutsi gas-botilei, eror ez daitezen
- Utzi koipez edo olioaz blaitutako trapeak metalezko edukiontzi estalkidunetan
- Jarri atzera egitea galarazten duten balbulak soldadura autogenoko ekipoa
- Oxigenoa eta koipea bateraezinak dira. Ez koipeztatu soldadura autogenoko ekiporik
- Sopletearen gas-irteera zure gorputzerantzko norabidean jartzeak erredurak eragin ahal dizkizu, gas-airea nahasketak txinpartez su hartzen badu

IBILGAILUEN LANTEGIAK ETA OSASUNA

- Lokalean egindako jardueraren araberako suteen aurkako bitartekoak egon behar dute
- Aldizka mantendu behar dira gas eta aire konprimituko instalazioak eta sua itzaltzeko bitartekoak. Mantentze-lan horiek bakarrik baimendutako erakundeek egin ahal izango dituzte


KontaktU termikoak eta kimikoak

Sopleteekin, ibilgailuaren zati edo likido beroekin edo aire girotuko gasekin lan egitean erre ahal zara.

- Erabili jarduera bakoitzerako babes-ekipo egokiak, hala nola, soldadura-lanetarako betaurrekoak edo aurpegia babesteko pantailak, eskularruak, mahuka-erdiak, mandila eta polainak
- Esku hartu baino lehen, itxaron ibilgailuan bero dauden zatiak hoztu arte
- Ibilgailuko aire girotuko gasa kargatzean oso tenperatura baxuan ateratzen da eta erre ahal zara
- Laxatu baterietako ontzien tapoiak gasak errazago irten daitezen eta leherketak galarazteko. Saihestu txinpartak inguruetan
- Bateriako azidoa manipulatzeko, bota azidoa uraren gainean, inoiz ez alderantziz, proiektio arriskutsuak saihesteko. Erabili begi-babesleak

Arrisku Ergonomikoak

Zutik lan egiteak, kargak maneiatzeko eta behartutako jarrerak gehiegizko esfortzuak eta gihar eta hezurretako arazoak eragin ditzakete.



- Erabili orga eta garabia pieza handiak eta astunak lekuz aldatzeko
- Ez egon luzaroan behartutako jarreretan eta leku txikietan
- Erabili jasogailuak lan-eremua altuera erosoagoan egon dadin

IBILGAILUEN LANTEGIAK ETA OSASUNA

Arrisku Higienikoak

Ihes-gasak

Errekuntzan zehar sortzen diren karbono monoxidoek eta gasek modu kaltegarriak eragin diezaiokezte zure osasunari.

- Motorrak martxan daudela, erabili ihes-hodiko gasak xurgatzeko sistemak
- Izan lantegian aireztapen egokia

Produktu kimikoak

Disolbatzaileek, pinturek eta bernizek modu kaltegarrian eragiten diote zure organismoari.

- Erabili CE markaketa daramaten eskularruak eta ez erabili disolbatzaileak esku garbitzeko
- Lixatzean, erabili hautsa ateratzeko sistemak eta jantzi CE markaketa daramaten maskara edo betaurreko babesleak
- Margotu bitartean, erabili lurrin organikoetarako maskara eta betaurreko babesleak, betiere, CE markaketadunak
- Erabili aparteko eta aireztatutako kabina pinturak eta bernizak aplikatzeko. Funtsezkoa da iragazkien mantentze-lana
- Jarraitu fabrikatzailearen jarraibideak produktu kimikoak erabiltzean



Egiaztatu ahal izan duzun bezala, ibilgailuen lantegi batean lan egiteak zure osasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeen arriskuak ditu.

Beharrezkoa da unean uneko prebentzio-neurri egokiak jarraitzea, zaila baita gure gorputzaren ordezkotzat aurkitzea.